



## Inongoak ez

Ingurugiroarekin kontzientziatuta, berdintasunaren aldeko mezuak zabaltzen, arrazakeriaren kontra, LGTBI + kolektiboak aldarrikatuz, minbiziaren ikerketa sustatzeko aitzindari, Espainia-ko Estatuaren batasunaren alde, Kataluniako independentzia babestuz, *Brexit*-aren kontra... aspaldidanik agertzen zaizkigu enpresak kontzientzia sozialarekin. Enpresa munduan Gizarte Erantzukizun Korporatiboa (GEK) deitzen zaio. Marketin sailak arduratu ohi dira horretaz, eta enpresei, noski, euren marka balore jakinekin lotzeaz gain, kasu askotan “irudia garbitzen” laguntzen die, eta bide batez gizarte mugimenduetatik etor daitezkeen boikot mehatxuei aurre hartzen eta horiek desaktibatzen.

Printzipioz mozkinen zati bat gizartera bideratzeak onerako hartu beharreko jarduna dirudi, eta, nola ez, badira sinesmen osoz eta asmo zintzoekin egiten duten eragile ekonomikoak. Betiko gisan, ordea, ipuina ez da dirudien bezain polita. GEK-etan gehien inbertitzen duten enpresak multinazional handiak dira. Lobbyetan antolatuta eta mozkinak galtzearen beldur sistema aldaketa handirik nahi ez duten horiek beroiek. Gizarte mugimenduetatik kritika gehien jasotzen dituzten horiexek. Maiz erabiltzen diren bi adibide argigarri jartzearen, *Coca-Cola*-k “edari ekologikoak” ekoizten dituela aldarrikatzen du, egun bakar batean plastikozko 110 bilioi botila munduratzten dituen bitartean. Volkswagenek, berriz, diesel motorrak

Euskal Herritik begiratuta, erronka handiena aldarrikapen horiek guztiak herri proiektu batekin lotzea eta burujabetzak egitasmo aurrerakoi bat garatzeko duen garrantzia azpimarratzea da

“merkatuko garbienak” izango bailiran iragartzen zituen, isuriak manipulatzeko gailua instalatuta zuten urteetan.

Zuriketa morea, berdea, arrosa, urdina edo ostadar kolorekoa. Gustu guttiararako. Hipokrisia eta ekintza erretoriko hutsa batzuetan, manipulazioa besteetan. Baina, beti, karga ideologiko nabarmenarekin. Publizitate bidez dena aldatzeko borondatea agertzen dute, funtsean azaleko kontuetara arreta bideratu eta ezer alda ez dadin. Karbono isurietan arreta jartzeko, eta ez sistema kapitalistan eta garapen eremuan. Emakumei gutxiago ordaintzea banakako erabakien multzoa izango balitz bezala, eta ez patriarkatuaren beste ertz bat.

Kritika bera egiten zaie azken boladetan sona hartu duten zenbait mugimenduri, esaterako, Europa osoko gazteak klima aldaketaren aurka kalera atera di-



ESTITXU GARAI ARTETXE  
EHU-KO IRAKASLEA

tuen *Fridays for Future* (Ostiralak Etor-kizunaren Alde) ekimenari. Greta Thunberg nerabe suediarren ekintzaz eta batez ere sare sozialen bidez hedatu den ikasle greba honen atzean kapitalismo berdea interesatzen zaien multinazional eta lobbyak kokatu dituzte mugimendu ekologistatik bertatik.

Bai enpresen marketin jarduna, bai horrelako mobilizazio mediatiko eta globalak, mehatxu edo aukera gisa ikus daitezke. Gazteek ingurumen gaiekiko kontzientzia garatzea, nahiz eta azaleko kontu horien bidez izan, aukera izan daiteke mugimendu ekologistak indarra hartu eta gaia benetako ekologismo iraultzaile eta antikapitalistan kokatzeko. Horren adibide feminismoa. Han eta hemengoek martxoaren 8aren bueltan bere mezuak bidaltzeak gaia agendartzten eta zabaltzen lagundu zezakeen, baina gero hor egon zen Euskal Herriko mugimendu feminista aldarri antikapitalista eta antipatriarkalean kokatuz eta zapalkuntza guztiak aintzat hartuz.

Euskal Herritik begiratuta, erronka handiena aldarrikapen horiek guztiak herri proiektu batekin lotzea eta burujabetzak egitasmo aurrerakoi bat garatzeko duen garrantzia azpimarratzea da. Anje Duhaldek kantatzen zuen moduan: “Munduak neuretzat hemen dauka bere hastapena eta nahi nuke ezagutzen banu dena, konpreni dezaket menperaturik dagoena, hemen hasten baita dena!”. Mehatxua aukera bihurtzen hasi beharko. ●